



MARRUTXIPI: INFERNURA JAITSIERA

2021eko irailean albistearen berri eman ziguten. **Saihesbiderako sarbide berria Marrutxipin** (Intxaurren, Donostia). 12,5 milioi hasierako aurrekontua.

Proiektuaren hazia? Donostiako autobus geltokia. Erriberan eraikitzea zen. Multimodala eta modernoa, XXI. mendekoa: Euskotren – Renfe – Dbus. Interes politiko eta ekonomikoek autobus geltokirako intermodalitate proiektua desegitea erabaki zuten, EuskoTren erabiltzen duen Gipuzkoako herrietako biztanleak zigortuz eta beste kokapen bat asmatuz, Euskotrenekin loturarik izan gabe eta auto pribatua bultzatuko zuena: Egia. Gero, Bizkaia Pasealekura auto-ilara luzeak eta etengabeak iritsiko ziren.

Faktore horri **Donostiako saihesbidearen Karlos I.aren sarbidean trafikoaren zirkulazioa murrizteko** ezarritako bezalako neurriak gehitu behar dira, **Garberako biribilgunean puntako orduetan sortzen diren ohiko auto-ilarak eta merkataritza-gune horren zabaltze proiektua bera**, zinema-aretoak, Primark eta fastfood bezalako establezimenduak aurreikusten dituen, ibilgailu pribatuarentzat ia eskusiboa den merkataritza-eredu bat bultzatzen duena.

Gizarteak berak **ibilgailua** ia gauza guztietarako **erabiltzeko** duen **erosotasuna** eta familia-unitate bakoitzeko ibilgailu kopurua emendatzea, edo **kontrolik gabeko turismo masibo bat infinituraino haztea, taloitegia maite duen** eta gure Planetaren eta bere jendearen osasunarekin loturarik ez duen tokiko **klase politiko batekin batera**, erabakigarriak izan dira, halaber, **665 zuhaitz eder eta handi moztea** ekarri duen esku-hartze honetarako.

Horretaz guztiaz, eta ziur beste faktore batzuek ere bai, Marrutxipirako proiektu artifizializatzailea.

Bitartean, Donostiako Udalak hiriko zirkulazioaren zarataren mapa argitaratu berri du. **Eremua akustikoki hiriko 3 eremu kutsagarrienen artean sailkatuta dago.** Txosten horrek adierazten duenez, 60.000 donostiar (biztanleriaren herena), aisialdiak eragindako zarata kontutan hartu gabe, **gauean trafikoak sortarazten duen 60 eta 65 dezibelio** bitarteko balioen aurrean daude. **Osasunaren Mundu Erakundeak**, ibilgailuen trafikoak osasunean eraginik izan ez dezan, eguneko 53 dezibelio eta **gaueko 45 dezibelio** gomendatzen ditu, **"Lo egin ezineko eta, oro har, osasun-arazoekin lotuta baitaude"**.

Donostiako alkateak, Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak eta Bide Azpiegituretako foru diputatuak, ez inguruan, ez Etzieta parkean, **ez zela eraginik izango zin eta zin egin zuten.**



Gertakizunek ordea, beste bide bati eutsi diote. Udal-partzelako Mons pasealekuko 180 zuhaitzak, pasealeku horretako beste 362 zuhaitzak ere bai, baina Aldundiaren lursailekoak, eta autobidearen erdibitzailean zeuden beste 123 zuhaitz ere, foru-partzela batekoak horiek ere, erasotu eta eraitsi egin dituzte. **665 zuhaitz erraldoi gutxiago gutzira.**

Guztiak ederrak. Eite handikoak, 5 solairuko eraikinen altuera aise gainditzen duten etarikoak. Bana-banan zenbatu genituen. Astigarra hemen, altzifrea han. Haritza hor eta ezkia haratago. Haiekin batera, lizarrak, platanondoak, eukaliptoak, ereintzak...

Haien adarretan jauzika eta txioka, txinboak, erregetxoak, birigarroak, zozoak, txolarreak, txontak, karnabak, txirriskilak, txorruak, kaskabeltzak, amilotxak... Horietako batzuk, oraindik ere, habiatik atera berriak ziren kumeei jaten ematen. **Hortxe, bazebilen ere amiral gorria (*Vanessa atalanta*) gisako tximeleta ederra hegan, hegoak beltz distiratsuak dituen, xingola laranja eta zuria apainduta.** Erlerik? Gutxi batzuk bai eta, gauean, saguzarrak, nola ez.

Ekos eta Ekolur enpresek egindako **ingurumen-inpaktu azterketaren txostena** sarean dago. Autopistarako sarbidea eraikitzeko zenbat **zuhaitz bota behar ziren inondik inora ez da agertzen**, ezta zenbat ordezkatuko dituzten ere. Agian, Administrazioaren enkarguak urteen zehar etengabe jasotzeko gakoetako bat horrelako oinarrizko informazioa publikoki ez islatzea izan daiteke. Ez argitaratzea baina jakinaraztea bai; izan ere, **zuhaitzak moztu behar zituen enpresak alde aurretik bazekien zenbat ale ziren eta zenbateko aurrekontua bi administrazioei luzatu behar zitzaien.**

Txosten horretan egindako fauna ikuskapenean soilik zozoa, birigarroa eta txepetxa aurkitu izana, harrigarria ere bada.

Txostenaren egileek 2040. urtera arte beroaldiak soilik %10 bat emendatzea aurreikusten dute. Termometroak nola dauden ikusita, barregarria, ezta?.

Bitxia da, gero eta hiri gehiagotan egiten den bezala, ez Udalak ez Aldundiak Intxaurrendorako tenperaturaren igoera moteltzeko planik aurkeztu eta prestatu ez izana; esate baterako, zirkulazio gutxiago pairatzeko neurriak, landaredia izan dezaketen teilatuak moldatzea, zuhaitzi gehiago kaletan zein parketan, korridore berdeak, ur-eremuak... eta, horren ordez, Donostiako gau tropikaletako kaka usaia eragiten duen iharduera elikatzea. Izan ere, moztutako zuhaitzen enborrak kirats hau sortarazten duen Donostiako udalerrri ondoko enpresa batera eramango dituzte. Hots, **Intxaurrendokoei osasuna eta bioaniztasuna oparitzen zieten 665 zuhaitz erraldoi bertakoen baimenik gabe hil eta ebaki dizkiete eta, horren truke, agintariak bizilagunei are kutsadura akustiko gehiago eta gaueko kaka kirats sarkor gehiago jasanaraziko diete** (maiz, haizeak gauean norabidea aldatzen du).



Non daude ekologia zinegotzia eta Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua?

Ondarearen eta osasunaren aurkako atentatua hain latza izan da, non **Juan López de Uralde donostiarrak berak eta, baita Gorte Nagusietako diputatuk ere, Estatuko gobernuari Estatu mailako hiri guztietan zuhaitzak babesteko eta mantentzeko estatus juridikoa abian jar dezala eskatu dion** eta Marrutxipiko eraso adibide gisa jarri du, inola ere egin behar ez den esku-hartze eredu bezala. **Bere kudeaketa kontu handiz isildua izan da, ikustezina bilakatu dutelarik.**

Donostiarrok ez al gaude 2020ko martxoaren 17tik klima larrialdiaren egoeran?

Bai jaun-andreok, arazoa ez da soilik klima hondatzea, bioaniztasunaren galera eta kutsadura, benetako arazoa ingurumen krisia da eta amildegira garamatzen klase politikoa.

Marrutxipiko Mikel Gascaren zuhaitz mozketaren **BIDEOA** YouTube-n:

Arboles por cemento en Intxaurreondo

<https://youtu.be/KqzIkReMNKA>

Tala de árboles en Intxaurreondo

<https://youtu.be/9IHrOPT6EP0>

Ingurumen-inpaktu azterketa irakurtzeko Interneten:

MARRUTXIPI Coordinadora Vecinal

<https://marrutxipi.com/>

Ingurumen Inpaktu Azterketa:

[Lotura](#)

Parkea Bizirik "Kukulunbera"

Egian, 2022ko irailaren 13an



665 ZUHAITZ ERRALDOI GUTXIAGO



MARRUTXIPI

AGUR BIOANIZTASUNA, AGUR



Erle arrunta / Abeja europea
(*Apis mellifera*)



Amiral gorria / Vulcana
(*Vanessa atalanta*)



Horma-sugandila / Lagartija roquera /
(*Podarcis muralis*)



Erregetxo bekainzuria / Reyezuelo listado /
(*Regulus ignicapillus*)



Gerri-txori arrunta / Agateador común
(*Certhia brachydactyla*)



Amilotx urdina / Herrerillo común
(*Cyanistes caeruleus*);

MARRUTXIPI

AGUR BIOANIZTASUNA, AGUR



Kaskabeltz handia / Carbonero común
(*Parus major*)



Txinbo kaskabeltza / Curruca capirotada
(*Sylvia atricapilla*)



Txepetxa / Chochín
(*Troglodytes troglodytes*)



Txantxangorria / Petirrojo /
(*Erithacus rubecula*);



Birigarro arrunta / Zorzal común
(*Turdus philomelos*)



Zozo arrunta / Mirlo común /
(*Turdus merula*)

MARRUTXIPI

AGUR BIOANIZTASUNA, AGUR



Txirriskila arrunta / Verdecillo
(*Serinus serinus*)



Txorrua / Verderón
(*Carduelis chloris*)



Txonta arrunta / Pinzón vulgar
(*Fringilla coelebs*)



Karnaba / Jilguero
(*Carduelis carduelis*)



Etxe-txolarrea / Gorrión común /
(*Passer domesticus*)



Usapel turkiarra / Tórtola turca /
(*Streptopelia decaocto*)

MARRUTXIPI

AGUR BIOANIZTASUNA, AGUR



Pagausoa / Paloma torcaz
(*Columba palumbus*);



Pipistrello arrunta / Murciélago enano
(*Pipistrellus pipistrellus*)



Triku arrunta
Erizo europeo occidental
(*Erinaceus europaeus*)